

DONOSTIAKO GAZTEAK
LANGILLE MAISUEN FESTA

1859 GARREN URTEKO ZANPANZART EGUERDIAN.

IBIL BERDIÑA.

Iñauterian oitu bezela
Donostiako gazteak
Marcha kantari batzuek eta
Soñu arekin besteak,
Datoz plazako dantza lekura
Gaur esker onez beteak
Bakoitza bere beargayakin
Erakustera nekeak.

Zortzi langille maisu jakintsun
Andreak aldamenean,
Garbi, egoki apaindurikan
Jazkai onenak soñean:
Pozez kantari gogoarekin
Daude nor bere lanean,
Eta sarritan dantza oi dira
Bearrik ez dutenean.

BELAUN CHINGOA.

Nere langille maiteak, zar eta gazteak,
Aditu nekeak,
Pena naigabeak,
Igaro ditugunak, gizon zital dollorrek
Aisa sinisturik,
Gaude damuturik:
Ontzietan joangiñan Montevideorá,
Galtzera denborá
Alperkeriará:
Goseak erdi illak, ez ezeren jabe,
Lan ta dirubage
An egon gerade.

PISPILIN.

Dendari eta Zapataria
 Berak nor baldin badira
 Egitekoa badute eta
 Chit ongi biziko dira:
 Pispilin, pozpolin, plazara danbo-
 Goseak ilko ezdira. (lin

Arotzak eta Pichargilleak
 Oi dute lana ugari
 Bearra gogoz egiñarekin
 Kobru ematen lanari:
 Pispilin, pozpolin, plazara danbo-
 Izanditezke chit ongi. (lin

Kupelagille, Perratzalleak
 Bearra urri bakana,
 Biak gogoa on dute baña
 Nai duten diña ez lana:
 Pispilin, pozpolin, plazara danbo-
 Beti eskasa jornala. (lin

Pazingille ta Chorrotzallea
 Lana egiten oituak
 Atzerrikoak izanagatik
 Bearrerako zinzoak: (lin
 Pispilin, pozpolin, plazara danbo-
 Biak gizoncho prestuak.

ARDO CHURRUT.**SENARRAK.**

Beti beargiñean
 Neke azpian
 Bururik jaso gabe
 Nere bizian:
 Iñauterian
 Acheren aldicho bat
 Det Donostian,
 Eguncho bian
 Goiz arratsalde eta
 Egüerdian,
 Plaza berrian
 Egunaz eta gabaz
 Ordu guztian.

EMAZTEAK.

Ezkondu nintzan eta
 Ez det damurik
 Ezin autuko nuen
 Senar oberik,
 Leyalagorik
 Berarekin bizi naiz
 Pozez beterik,
 Penak azturik
 Ez du nere gizonak
 Bere parerik
 Bear gillerik
 Iñork ikusi ez du
 Beincho geldirik.

BAI, BAI, BAI.

Nagusi, echekoandre,
 Eta mirabeak,
 Plazan daude, ichirik
 Echeko atearak.
 Bai, bai, bai, festetan
 Zar eta gazteak.

Egunero badatoz
 Jendekapokoak
 Ikustera eralde¹
 Plaza berrikoak.
 Bai, bai, bai, festacho
 Iñauterikoak.

ZORTZIKOA.

Festarik bear bada
 Bego Donostia,
 Betikoa du fama
 Ondo merezia:
 Bestetan ez bezela
 Emen gazteria
 Amaren sabeletik
 Dator ikasia.

Donostiarrak dute
 Aukera, doaia
 Urtero asmatzeko
 Festa bat berria:
 Beren moduchoa da
 Guztiz egokia
 Zer nai gauzetarako
 Arkitzen du gaya.

Aurten ñaute festak
 Eder eta luze
 Otsailla bengoan
 Oso bete dute:
 Iñoiz ez det ikusi
 Iñon onenbeste
 Eta gerora ere
 Ez ikusi uste.

San Bizente goizean
 Bostak jo etzuten
 Atabal danboliñak
 Nenguen entzuten:
 Ordu bian argirik
 Ez nuen ikusten,
 Logale nintzan baña
 Etziraten uzten.

Ill onen asieran
 lehengo jayean
 Egun sentiarekin
 Nintzala oyea:
 Iñudeak aurrakin
 Zebiltzan kalean
 Ta goño-saltzallea
 Berakin batean.

Beste zenbait badira
 Arrezkerokoak
 Festa eder egoki
 Donostiakoak:
 Gero estudiante
 Eta ijitoak,
 Zortzi maisu langille
 Gerade gaurkoak.

(1) Eralde, comparsa.